

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TELEBISTAKO PROIEKTUEN AURREKONTUEN PRESTAKETA	Iraupena	40
		Baldintzatua	
Kodea	UF0367		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produktzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebistako proiektuen produkzioa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Telebistako proiektuak produzitzeko baliabideen zehaztapena	Iraupena	80
	Telebistako proiektuen produkzioaren lanerako planaren prestakuntza		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0207_3 TELEBISTAKO PROIEKTUEN PRODUKZIOA ANTOLATZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurrekontuak egitea, aurrekontuen kontu-sailak aztertuz eta baloratuz, eta aldagai tekniko eta ekonomikoak txertatuz.

E1.1 Telebista-programen produkzioan erabiltzen diren aurrekontuen funtzioa bereiztea eta deskribatzea.

E1.2 Produkzio-prozesuko aurrekontu-kapitulu estandarizatuak identifikatzea, kontu-sailak deskribatuz eta baliabide propioak eta besterenak bereiziz.

E1.3 Aurrekontu-eredu ofizial erabilienak ezagutzea eta deskribatzea.

E1.4 Telebista-programen ezaugarri espezifikoetara egokitzen diren aurrekontu-eredu tipoak diseinatzea.

E1.5 Enpresaren gastu orokorrak eta telebista-programen produkzioaren gastu espezifikoak bereiztea.

E1.6 Merkatuko baliabideen, zerbitzuen eta prestazioen prezio eguneratuak lortzeko aukera ematen duten informazio-iturri nagusiak identifikatzea.

E1.7 Telebista-programa baten gidioitik edo eskaletatik abiatuz:

- o Material teknikoaren eta grabazio-materialaren beharrak identifikatzea, eta kalkulatzeko.
- o Merkatuko tarifen arabera baliabideen, zerbitzuen eta prestazioen prezio eguneratuak lortzeko katalogoak eta datu-baseak kontsultatzea.
- o Aurrekontua egitea, aurrekontuko kontu-sailen balorazio ekonomikoa jasoz, eta baliabide propioak eta besterenak bereiziz.
- o Aurrekontuaren laburpena eta erabilitako tekniken argibide-memoria egitea.
- o Kalkuluak egitea, eta dokumentuak ongi prestatzea, teknika eta kode egokiekin, tresna informatikoak behar bezala erabiliz.

A2: Telebista-programen produkzioaren aurrekontua aztertzea, prestatzea eta aurrera eramatea, kamera ugariarekin.

E1.2.1 Drama baten aurrekontua egitea, gidioitik eta lanerako planetik abiatuz.

E1.2.2 Albistegi baten aurrekontua egitea, gidioitik eta lanerako planetik abiatuz.

E1.2.3 Barietate-programa baten aurrekontua egitea, gidioitik eta lanerako planetik abiatuz.

E1.2.4 Emankizun baten aurrekontua egitea, gidioitik (eskaletatik) eta lanerako planetik abiatuz.

Edukiak

1. Telebista-programen aurrekontua

- o Aurrekontu-motak, eta haien ezaugarriak.
 - Aurrekontu teknikoa.
 - Aurrekontu ekonomikoa.
- o Aurrekontuen kapitulu estandarizatuak
- o Aurrekontuaren kontu-sailak.
 - Finkoak.
 - Zenbatetsiak.
- o Gastu-motak.
 - Enpresaren gastu finkoak.
 - Programa-produkzioen gastu espezifikoak.

- Ustekabeak.
- Baliabide propioak eta besterenak.
- Aurrekontu-eredu ofizial erabilienak.
- Laburpenak eta argibide-memoriak.
- Aurrekontu-kontrola.

2. Aurrekontuko kontu-sailen prestaketa

- Material teknikoaren eta grabazio-materialaren beharren identifikazioa.
- Baliabideen, zerbitzuen eta prestazioen prezio eguneratuak lortzea.
 - Informazio-iturrien identifikazioa.
 - Katalogoen eta datu-baseen kontsulta.
- Kalkuluak egitea eta dokumentuak betetzea.
- Tresna informatikoen erabilera aurrekontuen kontu-sailak egiteko

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0366 Telebistako proiektuen produkzioaren lanerako planaren prestakuntza

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza